HEZKUNTZA SAILAK IKASKUNTZAK HOBETZEKO JARDUKETA BERRIAK AKTIBATU DITU, IRAKURMENA LEHENTASUN HARTUTA

- **Sailak Hobekuntza Estrategiako neurrien eragina ebaluatuko du, irakurmenaren arloko jardunbide egokiak sistematizatuko ditu eta ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak berrikusiko ditu.**
- **Hezkuntza Sailak baliabide digitalen hezkuntza-erabilerari buruzko irizpide eta jarraibide zehatzak ezartzeko eskura dagoen ebidentzia aztertuko du, eta 2027ko errolda-ebaluazioan funtsezko aldagaien bilakaeraren jarraipena egingo du.**
- **Begoña Pedrosak eta Adituen Foroko kideek 600 ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe baino gehiagoko zuzendaritzekin partekatu dituzte gaur lehentasun horiek, atzo Foro horrek egindako bileraren ondoren.**

(Barakaldo, 2026ko irailaren 11).- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasleen ikaskuntzak hobetzeko **jarduketa-ildo berriak** zehaztu ditu, PISA 2025eko emaitzak Ebaluazioko Adituen Foroarekin aztertu eta euskal hezkuntza-sistemaren bilakaerari buruz eskuragarri dauden gainerako ebidentziekin kontrastatu ondoren.

Hezkuntzako emaitzak ebaluatzea eta hobetzea lehentasuna da Eusko Jaurlaritzarentzat. Lan hori 2025eko otsailean abian jarritako Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integralaren esparruan garatzen da, eta hainbat ebaluazio, azterlan eta adierazletan oinarritzen da. Horiek aukera ematen dute ikaskuntzen bilakaera ezagutzeko eta erabakiak bideratzeko.

Estrategia Integralak jada identifikatua zuen **funtsezko konpetentzietako ikaskuntzak hobetzeko beharra, irakurmena barne**. PISAren emaitzek informazio berria eransten diote orain lan horri, eta Sailak **konpetentzia horren lanketa bereziki indartuko du**. Horretarako, emaitza onak lortzen ari diren jardunbideak identifikatu, sistematizatu eta zabalduko dira, ebidentzian oinarritutako jarraibide metodologikoak ikasgelara eramateko.

Lehentasun horrekin batera, Estrategia Integralaren barruan garatutako neurrien eragina ebaluatuko da, ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak berrikusiko dira, baliabide digitalen hezkuntza-erabilerari buruz dagoen ebidentzian sakonduko da eta 2027ko errolda-ebaluazioan funtsezko aldagaien bilakaera aztertuko da.

Lan-ildo horiek atzo **Begoña Pedrosa Hezkuntzako sailburuak Ebaluazioko Adituen Foroarekin batera** egindako azterketaren emaitza dira, eta gaur goizean **Euskadiko 600 ikastetxe publiko eta itunpeko baino gehiagoko zuzendaritzekin** partekatu dira, Barakaldoko BECen, *«Hezkuntza-ebaluazioa eta sistemaren hobekuntza: ebidentziak, ikastetxeak eta estrategia partekatua»* jardunaldian.

"Ekiteko garaia da. Funtzionatzen duena indartu, beharrezkoa dena berrikusi eta behar den lekuan erantzun berriak planteatu behar dira", adierazi du Pedrosak jardunaldiaren irekieran.

DATUETATIK JARDUKETETARA

Gaur egindako jardunaldiak jarraipena ematen dio Sailak irailaren 8an PISA 2025eko emaitzak aurkeztu ondoren hartutako konpromisoari. Orduan, Hezkuntza Sailak Adituen Foroaren eta ikastetxeetako zuzendaritzen deialdia iragarri zuen, emaitzak aztertzeko eta Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integralaren barruan garatutako lanean informazio berria txertatzeko.

Atzo Foroarekin egindako bilerari esker, **bost jarduketa-ildo** zehaztu ahal izan dira: Estrategia Integralean garatutako neurrien eragina ebaluatzea; emaitzekin erlazio positiboa erakusten duten irakurmeneko jardunbide egokiak identifikatzea, sistematizatzea eta zabaltzea; hizkuntza-proiektuak berrikustea, hizkuntzen eta gainerako curriculumaren ikaskuntza planifikatzeko; baliabide digitalen hezkuntza-erabilerari buruzko irizpide eta jarraibide zehatzak ezartzeko eskura dagoen ebidentzia analizatzea; eta funtsezko aldagaien bilakaera analizatzea 2027ko errolda-ebaluazioaren bidez.

Emaitzak hobetzeko lana dagoeneko abian da. Estrategia Integrala 2025eko otsailean jarri zen abian, eta PISAk, hiru hilabete geroago egindakoak, informazio berria ematen du orain **zer jarduketa indartu behar diren, zein berrikusi behar diren eta non esku hartu behar den intentsitate handiagoz identifikatzeko**.

SISTEMAREN BILAKAERA EZAGUTZEKO EBIDENTZIA DESBERDINAK

Hezkuntza Sailak **hainbat iturri, ebaluazio, azterlan eta adierazle ditu, eta guztiak batera aztertu behar dira** euskal hezkuntza-sistemaren bilakaera ezagutzeko.

PISAk 15 urteko ikasleen konpetentziei buruzko nazioarteko erreferentzia ematen du. **Ebaluazio Diagnostikoak** Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleei buruzko informazio propioa eta berriagoa ematen du. Horiei ISEI-IVEIk bultzatutako ikerketa- eta ebaluazio-proiektuak eta ikasleen ikaskuntzekin, ekitatearekin eta hezkuntza-ibilbidearekin lotutako beste adierazle batzuk gehitzen zaizkie.

Joan den astean, Sailak aurtengo apirilean eta maiatzean egindako **2026ko Ebaluazio Diagnostikoaren** emaitzak aurkeztu zituen, PISA 2025etik ia urtebetera. Ebaluazio Diagnostikoak bilakaera positiboa erakusten du konpetentzia jakin batzuetan, baina ez uniformea. DBHko 4. mailan **gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioak hobekuntza esanguratsua izan du**, konpetentzia zientifikoak hobera egin du eta euskara egonkor mantendu da; Lehen Hezkuntzako 6. mailan euskara eta matematika hobetu dira, zientziak mantendu egin dira eta gaztelania jaitsi egin da.

PISAk eta Ebaluazio Diagnostikoak lotutako konpetentziak ebaluatzen dituzte, baina esparru, aplikazio-une eta populazio desberdinak dituzte. Bakoitzak informazio desberdina eta beharrezkoa ematen du. **Ebidentzia bakar batek ere ez ditu besteak ordezkatzen, eta eskura dagoen informazioaren baterako azterketatik abiatuta eraikitzen da sistemaren diagnostikoa.**

"Eskura dugun informazio guztiarekin lan egingo dugu: PISA, Ebaluazio Diagnostikoa, abian ditugun proiektuak eta, jakina, ikastetxeetan dugun ezagutza eta informazioa. Informazio hori guztia uztartu behar dugu, zer gertatzen ari den hobeto ulertzeko eta hartu beharreko erabakiak bideratzeko", azaldu du sailburuak.

IRAKURMENA, LEHENTASUNA

Irakurmena hobetzea **Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integralaren lehentasunen artean dago jada**. Euskadik PISAn izandako emaitzek konpetentzia horren lanketa indartzeko eta hobetzeko jarduketetan sakontzeko beharra berresten dute.

Irakurmena transbertsala da. Arazo matematiko bat ulertzeko, testu zientifiko bat interpretatzeko, informazioa erlazionatzeko, argudiatzeko edota denbora eta ahalegina eskatzen dituen testu baten aurrean arreta mantentzeko gaitasunari eragiten dio.

Sailak **emaitza onak lortzen ari diren jardunbideak identifikatzeko, sistematizatzeko eta ikastetxeetara hedatzea errazteko** lan egingo du, ebidentzia zientifikoa eta metatutako ezagutza irakasleen esperientzia profesionalarekin uztartuz.

Arlo horretan, euskal hezkuntza-sistemak baditu proiektu espezifikoak. Horien artean dago **ITT (Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna)**, irakurketa-trebetasunak ebaluatzeko eta ikastetxeei beren esku-hartzea bideratzeko informazio erabilgarria emateko tresna. Abian jarri zenetik, **32.770 ikaslek parte hartu dute ITT2n**, eta ITT5eko parte-hartzea **6.732 ikaslera** iritsiko da, 2026ko urrian parte hartuko dutenak kontuan hartuta.

Tresnak hezkuntza-praktikan ere eragina izaten ari da. **Jasotako erantzunen % 84k adierazten du ITTren emaitzetatik abiatuta ikastetxean irakurketa lantzeko moduren bat aldatu edo egokituko dela.**

TEKNOLOGIAREN HEZKUNTZA-ERABILERA ETA HIZKUNTZA-PROIEKTUAK

Adostutako beste ildoetako bat da **baliabide digitalen hezkuntza-erabilerari buruz eskura dagoen ebidentzia sakon aztertzea**, ikastetxeetara eraman daitezkeen irizpide eta jarraibide zehatzak ezartzeko.

Azterketak teknologiaren zer erabilerek errazten duten ikaskuntza, zeinek zaildu dezaketen eta zer baldintzatan aztertuko du, eta arreta jarriko du irakurketarekin,

kontzentrazioarekin eta arretarekin duten loturan. Aldi berean, ikasleen konpetentzia digitala garatzen jarraituko da.

Era berean, Sailak **ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen** gainean lan egingo du, hizkuntzen ikaskuntza planifikatzeko tresna gisa duten eginkizuna indartzeko eta hizkuntzaren ikuspegitik gero eta askotarikoagoa den gizarte- eta hezkuntza-errealitatera egokitzeko.

EZAGUTZA ADITUA ETA IKASTETXEEN EZAGUTZA

Gaur BECen egindako jardunaldiak aukera eman du lehentasun horiek 600 ikastetxe baino gehiagoko zuzendaritzei helarazteko eta garatzen ari diren ikerketa- eta ebaluazio-proiektuak partekatzeko, **ezagutza erabilgarria sortzeko eta sistemaren eta ikastetxeen hobekuntzara eramateko**.

Horien artean dago **Lehen Hezkuntzako eskola-eraginkortasunari eta -hobekuntzari buruzko azterlana**. 2019ko, 2023ko eta 2025eko Ebaluazio Diagnostikoetako informazioa erabiltzen du, **beren testuingurua kontuan hartuta eraginkortzat jotzen diren ikastetxeak** identifikatzeko eta haien emaitzak azal ditzaketen jardunbideak eta faktoreak aztertzeko. Helburua beste ikastetxe batzuentzat orientagarri izan daitezkeen jardunbide egokiak identifikatzea da.

Halaber, **Irakaskide** aurkeztu da, irakasleen indukzio- eta ebaluazio-programa esperimentala. Esperientzia pilotu gisa garatzen ari da **11 ikastetxetan, 15 mentorerekin eta praktikaldiko 40 irakasle funtzionariorekin**, eta aldi horren prestakuntza-dimentsioa indartu nahi du mentoretzaren, hausnarketaren eta ebidentzietan oinarritutako ebaluazioaren bidez.

Haiekin batera, **BerrAldatzen** proiektuak testuinguru konplexuetan lan egiten duten ikastetxeen eraginkortasuna eta ekitatea hobetzeko diseinatutako politikak aztertzen ditu, erabakiak hartzen eta sistema hobetzen lagunduko duten ebidentzia eta tresna praktikoak sortzeko helburuarekin.

Topaketak aukera eman du ikerketak eta ebaluazioak sortutako ezagutza **zuzendaritzen eta ikastetxeen ezagutza profesionalarekin** bateratzeko, eskura dauden ebidentziak ikaskuntzak hobetzeko erabaki eta jarduketa erabilgarri bihur daitezen.

”Gakoa da zorroztasunez aurrera egitea, erabakien eragina ebaluatuz eta beharrezkoa dena egokituz”, esan du amaitzeko Pedrosak.

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN ACTIVA NUEVAS ACTUACIONES PARA MEJORAR LOS APRENDIZAJES, CON LA COMPRENSIÓN LECTORA COMO PRIORIDAD

- **El Departamento evaluará el impacto de las medidas de la Estrategia de Mejora, sistematizará las buenas prácticas en comprensión lectora y revisará los proyectos lingüísticos de los centros.**
- **Educación analizará la evidencia disponible para establecer criterios y pautas concretas sobre el uso educativo de los recursos digitales y seguirá la evolución de variables clave en la evaluación censal de 2027.**
- **Begoña Pedrosa y miembros del Foro de Expertos han compartido hoy estas prioridades con las direcciones de más de 600 centros públicos y concertados, tras la reunión de dicho Foro celebrada ayer.**

(Barakaldo, 11 de septiembre de 2026).- El Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha concretado **nuevas líneas de actuación para mejorar los aprendizajes del alumnado**, tras el análisis realizado con el Foro de Expertos en Evaluación de los resultados de PISA 2025 y su contraste con el resto de evidencias disponibles sobre la evolución del sistema educativo vasco.

La **evaluación y la mejora de los resultados educativos constituyen una prioridad para el Gobierno Vasco**. Este trabajo se desarrolla en el marco de la Estrategia Integral para la Mejora de los Resultados Educativos, puesta en marcha en febrero de 2025, y se apoya en diferentes evaluaciones, estudios e indicadores que permiten conocer la evolución de los aprendizajes y orientar las decisiones.

La Estrategia Integral ya identificó la necesidad de **mejorar los aprendizajes en las competencias fundamentales, incluida la comprensión lectora**. Los resultados de PISA incorporan ahora nueva información a este trabajo y llevan al Departamento a **reforzar especialmente el trabajo en esta competencia**. Para ello, se identificarán, sistematizarán y extenderán las prácticas que están obteniendo buenos resultados, con el objetivo de trasladar al aula pautas metodológicas basadas en la evidencia.

Junto a esta prioridad, se evaluará el impacto de las medidas desarrolladas dentro de la Estrategia Integral, se revisarán los proyectos lingüísticos de centro, se profundizará en la evidencia disponible sobre el uso educativo de los recursos digitales y se analizará la evolución de variables clave en la evaluación censal de 2027.

Estas líneas de trabajo son resultado del análisis realizado ayer por la **consejera de Educación, Begoña Pedrosa, junto al Foro de Expertos en Evaluación**, y han sido compartidas esta mañana con las **direcciones de más de 600 centros públicos y concertados de Euskadi**, reunidas en el BEC de Barakaldo en la

jornada *"Evaluación educativa y mejora del sistema: evidencias, centros y estrategia compartida"*.

"Ahora toca actuar. Reforzar lo que funciona, revisar lo que sea necesario y plantear nuevas respuestas allí donde hagan falta", ha señalado Pedrosa durante la apertura de la jornada.

DE LOS DATOS A LAS ACTUACIONES

La jornada celebrada hoy da continuidad al compromiso adquirido por el Departamento tras la presentación, el pasado 8 de septiembre, de los resultados de PISA 2025. Entonces, Educación anunció la convocatoria del Foro de Expertos y de las direcciones de los centros para analizar los resultados e incorporar la nueva información al trabajo desarrollado dentro de la Estrategia Integral para la Mejora de los Resultados Educativos.

La reunión mantenida ayer con el Foro ha permitido concretar **cinco líneas de actuación**: evaluar el impacto de las medidas desarrolladas en la Estrategia Integral; identificar, sistematizar y extender las buenas prácticas en comprensión lectora que muestran una relación positiva con los resultados; revisar los proyectos lingüísticos para planificar el aprendizaje de las lenguas y del resto del curriculum; analizar la evidencia disponible para establecer criterios y pautas concretas sobre el uso educativo de los recursos digitales; y analizar la evolución de variables clave a través de la evaluación censal de 2027.

La mejora de los resultados es un trabajo que ya está en marcha. La Estrategia Integral se puso en marcha en febrero de 2025 y PISA, realizado tres meses después, aporta ahora nueva información para **identificar qué actuaciones deben reforzarse, cuáles requieren revisión y dónde es necesario intervenir con mayor intensidad**.

DIFERENTES EVIDENCIAS PARA CONOCER LA EVOLUCIÓN DEL SISTEMA

El Departamento de Educación dispone de **diferentes fuentes, evaluaciones, estudios e indicadores que deben analizarse conjuntamente** para conocer la evolución del sistema educativo vasco.

PISA aporta una referencia internacional sobre las competencias del alumnado de 15 años. La **Evaluación Diagnóstica** proporciona información propia y más reciente sobre el alumnado de 6.º de Primaria y 4.º de ESO. A ellas se suman los proyectos de investigación y evaluación impulsados por el ISEI-IVEI y otros indicadores relacionados con los aprendizajes, la equidad y la trayectoria educativa del alumnado.

La pasada semana, el Departamento presentó los resultados de la **Evaluación Diagnóstica 2026**, realizada en abril y mayo de este año, prácticamente un año después de PISA 2025. La ED muestra una evolución positiva en determinadas competencias, aunque no uniforme. En 4.º de ESO **mejora significativamente**

la comunicación lingüística en castellano, mejora la competencia científica y se mantiene estable el euskera; en 6.º de Primaria mejoran euskera y matemáticas, ciencias se mantiene y castellano desciende.

PISA y la Evaluación Diagnóstica evalúan competencias relacionadas, pero tienen marcos, momentos de aplicación y poblaciones diferentes. Cada una aporta información distinta y necesaria. **Ninguna evidencia sustituye a las demás y el diagnóstico del sistema se construye a partir del análisis conjunto de la información disponible.**

"Vamos a trabajar con toda la información disponible: PISA, la Evaluación Diagnóstica, los proyectos que tenemos en marcha y, por supuesto, el conocimiento y la información que tenemos en los centros. Tenemos que combinar toda esa información para entender mejor qué está ocurriendo y orientar las decisiones que debemos tomar", ha explicado la consejera.

LA COMPRENSIÓN LECTORA, UNA PRIORIDAD

La mejora de la comprensión lectora **ya forma parte de las prioridades de la Estrategia Integral para la Mejora de los Resultados Educativos**. Los resultados registrados por Euskadi en PISA refuerzan ahora la necesidad de intensificar el trabajo en esta competencia y profundizar en las actuaciones dirigidas a su mejora.

La comprensión lectora tiene un carácter transversal. Afecta a la capacidad para comprender un problema matemático, interpretar un texto científico, relacionar información, argumentar o mantener la atención ante un texto que exige tiempo y esfuerzo.

El Departamento trabajará para **identificar las prácticas que están obteniendo buenos resultados, sistematizarlas y facilitar su extensión a los centros**, conectando la evidencia científica y el conocimiento acumulado con la experiencia profesional del profesorado.

En este ámbito, el sistema educativo vasco cuenta ya con proyectos específicos. Entre ellos se encuentra **ITT (Irakurketa Trebetasunak neurtzeko Tresna)**, una herramienta para evaluar las destrezas lectoras y proporcionar información útil a los centros para orientar su intervención. Desde su puesta en marcha, **32.770 alumnos y alumnas han participado en ITT2**, mientras que la participación en ITT5 alcanzará los **6.732 estudiantes**, teniendo en cuenta los previstos para octubre de 2026.

La herramienta está teniendo también impacto en la práctica educativa. **El 84 % de las respuestas recogidas señala que, a partir de los resultados de ITT, se modificará o ajustará algún aspecto de la forma de trabajar la lectura en el centro.**

USO EDUCATIVO DE LA TECNOLOGÍA Y PROYECTOS LINGÜÍSTICOS

Otra de las líneas acordadas consiste en **analizar en profundidad la evidencia disponible sobre el uso educativo de los recursos digitales** para establecer criterios y pautas concretas que puedan trasladarse a los centros.

El análisis abordará qué usos de la tecnología favorecen el aprendizaje, cuáles pueden dificultarlo y en qué condiciones, prestando atención a su relación con aspectos como la lectura, la concentración y la atención, al tiempo que se continúa desarrollando la competencia digital del alumnado.

Asimismo, el Departamento trabajará sobre los **proyectos lingüísticos de centro** para reforzar su función como herramienta de planificación del aprendizaje de las lenguas y adaptarlos a una realidad social y educativa cada vez más diversa desde el punto de vista lingüístico.

CONOCIMIENTO EXPERTO Y CONOCIMIENTO DE LOS CENTROS

La jornada celebrada hoy en el BEC ha permitido trasladar estas prioridades a las direcciones de más de 600 centros y compartir los proyectos de investigación y evaluación que se están desarrollando para **generar conocimiento útil y trasladarlo a la mejora del sistema y de los centros**.

Entre ellos se encuentra el **estudio de eficacia y mejora escolar en Educación Primaria**, que utiliza información de las Evaluaciones Diagnósticas de 2019, 2023 y 2025 para identificar **centros considerados eficaces teniendo en cuenta su contexto** y analizar las prácticas y factores que pueden explicar sus resultados. El objetivo es identificar buenas prácticas que puedan servir de orientación para otros centros.

También se ha presentado **Irakaskide**, programa experimental de inducción y evaluación del profesorado que se desarrolla como experiencia piloto en **11 centros, con 15 mentores y 40 docentes funcionarios en prácticas**, y que busca reforzar la dimensión formativa de este periodo mediante la mentoría, la reflexión y la evaluación basada en evidencias.

Junto a ellos, **BerrAldatzen** analiza las políticas diseñadas para mejorar la eficacia y la equidad de los centros que trabajan en contextos complejos, con el objetivo de generar evidencia y herramientas prácticas que contribuyan a la toma de decisiones y a la mejora del sistema.

El encuentro ha permitido poner en común el conocimiento generado por la investigación y la evaluación con el **conocimiento profesional de las direcciones y de los centros**, con el objetivo de que las evidencias disponibles se traduzcan en decisiones y actuaciones útiles para la mejora de los aprendizajes.

“La clave es avanzar con rigor, evaluando el impacto de las decisiones y ajustando lo que sea necesario”, ha concluido Pedrosa.